

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Garate Garate

*Otxandio,
Bizkaia (1937)*

Aurkibidea



Biografia



Zelaieta auzoko Zelaieta baserrian jaio zen artzaintzari lotutako familia batean. Ama bertakoa zuen eta aita Atxartekoa, Abadiño. Bederatzi neba-arrebatatik seigarrena izan zen. Mekoleta auzoko eskolan ibili ostean, 10 urte zituenerako artzain lanetan hasi zen aitarekin. Tailerrean lan egin arren sekula ez du utzi baserri eta artzaintza bizimodua eta horri buruzko bizipenak kontatu dizkigu.

Zintak

OTX-016

- **Proiektua:** Otxandioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-07-14
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

OTX-017

- **Proiektua:** Otxandioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-07-14
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

OTX-018

- **Proiektua:** Otxandioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-07-14
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

OTX-030

- **Proiektua:** Otxandioko Euskaldun Zaharren Mintzamoldea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gabika-Aldekoa, Naiara
- **Data:** 2009-07-01
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** CD
- **Emalea:** Otxandioko Udala

Pasarteak

1. Senideak gerra denboran

- **Erref:** OTX-016/002
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Aitaren familiako 11 neba-arrebak bizirik irten ziren gerra denboran. Beste izeko bat eta lehengusina nola hil zituzten kontatzen du. Patxi justu gerraostean jaio zen. Anaia bat Ameriketara artzain joan zen eta lau urtez ibili zen han. Anaia zaharrek kontatzen zizkioten gerrako kontuak; aitak, oster, ez zuen hortaz hitzik egiten. Behin Patxi EAJrako hautetsi zuten, baina aitaren aholkuz ez zen berriz aurkeztu.</p>

2. Artzaintza transhumantea

- **Erref:** OTX-016/004
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:06:55. **Bukatu:** 00:08:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Hamar urte zituela, neguan, aitarekin artalde hartuta Arteara joan zen, eta bertan hiru hilabetez egon, eskolara joan barik. Udaran ere ez zen asko joaten eskolara, eta 14 urterekin utzi egin zion. 13 urterekin Sondikan egon zen artzain. Joan-etorria, artaldearekin, oinez egiten zuten. Negu bat Abadiñoko Matiena auzoan ere pasatu zuten.</p>

3. Durangon eta Otxandion lanean

- **Erref:** OTX-016/005
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:08:58. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Arratia-Nerbioiko lantegiak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:

Eskolan ondo ibilitakoak ofizioa ikastera joaten ziren, baina bera Durangoko tailer batean hasi zen lanean. 22 urte zituela tailerra Otxandiora etorri zen. Bizinai lantegi handiak tailer hori erosi egin zuen, konpetentzia kentzeko. Langileak Bizinain jarraitu edo Durangon gelditzearen aukerarekin azaldu ziren bat-batean. Azkenean Patxik Otxandioko Aulasa lantegian hastea erabaki, eta bertan jardun zuen erretiroa hartu arte.

4. Otxandioko tailerrak

- **Erref:** OTX-016/006
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:

Gaztetan ez zegoen lan faltarik Otxandion. Eibarrera lanera joaten ziren batzuk kooperatiba sortu zuten herrian, eta hark asko lagundu zion bertako industriari. Kooperatiba hori gaur egun Ulma taldean dago.

5. Eskola Mekoletan. Durangon Jesuitekin ibili zen

- **Erref:** OTX-016/007
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:14:12. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Eskolan hasi zenean, ezpainak oso margotuta zeraman "Ezpan pintto" gaitzizeneko maistra bilbotar bat zuten. 6-7 urterekin hasi zen Mekoleta auzoko eskolan, eta euskaraz egiteagatik jolas-orduan zigortu egiten zituzten. Hurrengo maistra, Gasteizkoa eta Trinidad izenekoa, ez zen hain gogorra izan. Geroago, Durangon lanean zenean, jesuitekin marrazketa ikasi zuen.

6. Otxandioko neskek herritik alde

- **Erref:** OTX-016/008
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Durangoko Estancona lantegiak ordainduta joan zen Jesuiten eskolara, marrazketa ikastera. Durangon lana egin zuenean izekoren etxean bizi zen. Arreba bat Durangora ezkondu zenean haren etxera pasatu zen. Neskek ez

zuten Otxandioko tailerretan lanik egiten. Otxandioko neskak hiriburuetara joaten ziren neskame eta nobio bila. Ezkondu eta kanpoan bizitzen geratzen ziren. Horrek herria “amatatzen” ziharduela dio Patxik.

7. Emaztegai bilaketa neketsua

- **Erref:** OTX-016/009
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:22:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neskek ez zuten nahi izaten Otxandion ezkontzerik. Gai honetaz nobia ohi batekin izaten zituen eztabaidak kontatzen ditu. Azkenean haserretu egin ziren. Aldi batean neskatan ibili barik egon ondoren ezagutu zuen emaztea izango zen errioxar emakumea. Bizpahiru urteko ezkongai-aldiaren ondoren, Patxiren etxera ezkondu ziren.

8. Emaztegaia erdalduna

- **Erref:** OTX-016/011
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Emaztegaia erdalduna zen, eta ezkondu zirenean Patxiren aita eta anaia bi etxean bizi ziren. Denek erdaraz egiten zioten, eta emazteak ez zuen euskara ikasi.

9. Neguko artzaintza

- **Erref:** OTX-016/013
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:27:07. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Gabon ostean joan eta apirilera arte egoten ziren ardiekin etxetik kanpo. Hainbesteko bat ordaintzen zioten terrenoen ugazabari. “Barrutiek” esaten zitzaaien haiei. Elurrik egiten ez zuen lekuetara joan behar izaten ziren neguan ardiekin. Berak hamabi urte zituela gogoratzen du Otxandion urtarrilean elurra egin eta martxora arte ez zutela lurrik ikusi. Orduan artzainak ez zeuden nahikoa prestatuta. Gero ikasi zuten udan belarra ihartu eta negurako gordetzen. Patxik ezkondu zen arte eduki zituen ardiak, latxa arrazako 160 bat buru.

10. Ardiak, txakurra eta astoa

- **Erref:** OTX-016/014
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:32:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Txakur bi erabiltzen zituzten, artzain-txakurra eta polizia-txakurra gurutzatutako arrazakoak. Txakur bati ondo irakatsiz gero, gero berak irakasten die ondorengoei. Sondikan ardiekin eta txakurrekin kaletik nola pasatzen ziren. Astoa ere eramaten zuten, arropak-eta eraman eta bildotsik jaioz gero ere eramateko. Txakurrak askotan ezer esan gabe egiten zuen bere lana.

11. Txakur kontuak

- **Erref:** OTX-016/015
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:32:06. **Bukatu:** 00:35:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Txakurrak ardiak sorotik nola ateratzen zituen. Txakur gogorrak zituen gustuko Patxik; komeni zenetan ardiei haginka egingo zietenak. Bai txakurrak eta bai astoak, emeak izaten zituzten Zelaieta baserrian. Astoak urtero egiten zuen umea. Aitak behin aldeko txakurra etxeko ganbarako leihotik behera bota zuen.

12. Txakur kontu gehiago

- **Erref:** OTX-016/017
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:36:37. **Bukatu:** 00:40:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Aitak, txakurzain famatua bera, beste artzain bati haren artaldeko ardirik onenaren truke eman zion bere txakurra. Txakur kontu gehiago.

13. Txakurrari letaginak ebaki

- **Erref:** OTX-016/018
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:40:08. **Bukatu:** 00:43:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txakurrak beste txakur batengatik asko ikasten du. Bere anaiak ardiei haginka larregi egiten zien txakur bati letaginak ebaki zizkion aliketekin. Ardi-txakur ona omen zen. Txakur kontu gehiago.

14. Asto laranja zalea

- **Erref:** OTX-016/019
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:43:37. **Bukatu:** 00:46:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Astoa bere kumearekin goizean basora bidaltzen zuten larrera, eta ilunkaran astoa beti kalean aurkitzen zuten, laranja azalak jatera joanda. Astoa harrapatzeko komeriak egiten zituzten. Bere gainera igoz gero, astoak berehala botako zuen asto gainekoa.

15. Astoaren astakeriak

- **Erref:** OTX-016/020
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:46:54. **Bukatu:** 00:48:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Astoa bizikletekin beldurtu egiten zen, eta horrexegatik zaldu zieten Zelaietarrei. Astoak egindako astakeriak.

16. Astakeria gehiago

- **Erref:** OTX-016/021
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:48:26. **Bukatu:** 00:50:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Anaia zaharrari saiheitsak apurtu zizkion ostikoz. Astoak azkeneko kumea izan zuenean, umetokia irten zitzaion eta bertan hil zen.

17. Asto mutur fina

- **Erref:** OTX-016/022
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:50:56. **Bukatu:** 00:53:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Astoari etxekoa ez, baina erreka ura gustatzen zitzaion edateko. Txorizoa ere gustatzen zitzaion. Soroan lanean, askaltzeko pago zulo batean freskuran utzitako txorizoak astoak jan zizkien.

18. Eta asto azkarra

- **Erref:** OTX-016/023
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:53:07. **Bukatu:** 00:56:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Astoak bera lotzen zuen katea haginekin askatzen ikasi zuen. Goizeko hiruretan katea arrastaz zeramala etxetik ihes egin zuen. Aita atzetik joan zitzaion, katea inork lapur ez ziezaion. Asto azkar hori hil zenean, bere azkeneko kumea geratu zen etxean. Ogi zatia baino hobea omen zen kume hori, Katalintxo izenez.

19. Abereen ernaltze lanak

- **Erref:** OTX-016/024
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:56:52. **Bukatu:** 00:59:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Asto emeak ar beharra duenean, berak aurkitzen du, beste edozein aberek bezala. Ahariak bildotsik egin gabeko ardi gazterik ez du hartzen, jo eta bota baino, zaharragorik baldin badauka aukeran. Arkazteak ahari gazteekin jartzen zituzten.

20. Ardiak ernaltzeko garaiak. Bildotsak

- **Erref:** OTX-016/025
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:59:24. **Bukatu:** 01:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ardiak abuztuan aharituz gero, bildotsak Gabonetan jaiotzen dira. Artzainek nahiago izaten zuten bildotsok martxoaren hasieran jaiotzea. Aharia ez zen ardiekin ibiltzen sasoi egokira arte. Arkera garaiko arazoak. Normalean bildots bat izaten zuen ardiak, baina ondo gobernatuz gero bikotxak ere jaiotzen ziren. Intseminazio artifiziala.

21. Bildots bikotxekin lan gehiago

- **Erref:** OTX-016/026
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:02:57. **Bukatu:** 01:05:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Urte batean 120 arditik 40k bikotxak izan zituzten. Ahariairengatik omen zen, baina hura zuria zen, eta bildots gehienak beltzak. Lazoak jarri zizkieten bikotxak ezagutu ahal izateko. Bikotxak zaintzea lan asko ematen zuen.

22. Biberioia eta bildots umezurtzak

- **Erref:** OTX-016/027
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:05:19. **Bukatu:** 01:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Biberioia ez zuten erabiltzen, ardiren bat hil eta haren kumeak beste baten esnearekin hazteko ez bazen behintzat. Oso arraroa izaten zen ardi batek bere kumea ez zenari esnea ematea.

23. Bildotsa gaizki zetorrenetan

- **Erref:** OTX-017/001
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Bildotsak jaiotzeko kontrako eran zetozenean, Patxiren anaia gazteenari deitzen zioten, baita beste artzain batzuek ere, bildotsari buelta emateko bere esku txikiak aproposak ziren-eta. Bikotxek hankak nahasi badakartzate tripan, bereiztu egin behar dira ondo jaio daitezen. Batzuetan komeriak egiten zituzten bildotsa onik ateratzeko.

24. Bildots larruak eta artilea

- **Erref:** OTX-017/003
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Etixerako bildotsen bat hiltzen zutenean, haren larrua bildots umezurtz bati

gainetik jartzen zioten, hildakoaren amak onartu eta haz zezan. Bildotsa nola larrutzen zuten azaltzen du. Orduko garaitan bildots larrua ondo ordaintzen zuten. Artilea ere prezio onean saltzen zen.

25. Aharia hautatzea

- **Erref:** OTX-017/004
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ileagatik aukeratutako ahari bat ekarri zuen aitak Gorbeiatik. Artzain lagunek ile ekoizpenaren aldea ikusi zutenean, haiek ere ahariak aldatu egin zituzten. San Joan inguruan mozten ziren ardiak. Ardi moztea festa handia izaten zen.

26. Bildots eta ardien larruak. Artilea

- **Erref:** OTX-017/005
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:11:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ardiak pozik egoten ziren ilea kentzen zitetenean. Bildots larrua 1.000 pezetatan saltzen zen, eta artile kiloa 35ean. Ile kapak zakutan sartzen zituzten, “laneroek” kamioian eraman zituzten. Orain dela hamabost bat urte arte horrela egiten zen. Ahari onen larruak uztarriak estaltzeko erabiltzen ziren.</p>

27. Idiekin lanean. Ardi tratoan

- **Erref:** OTX-017/007
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:12:08. **Bukatu:** 00:16:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Uda eta udazkenetan aita idiekin ibiltzen zen jornalean goizetik gauera arte, edozeinen soroak lantzen. Patxik dio euren etxea ardiek atera zutela aurrera. Frantziarrak etortzen omen ziren artaldeak eroatera. Aita ez zen ardiak saltzearen aldekoa, baina prezio ona lortzen zuenean saldu egiten zituen.

28. Gazta saltzera Durangora

- **Erref:** OTX-017/008
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:16:07. **Bukatu:** 00:18:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Lehen, gazta gutxiago egiten zen. Anaia gaztak otzaran hartuta Durangora joaten zen saltzera, autobusean. Patxik Durangon egon zen denborako oroimen ona du. Lanetik jesuiten eskolara, eta gero izekoren etxera joaten zen kartetan jolastera.

29. Uztarrigintza

- **Erref:** OTX-017/010
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:19:32. **Bukatu:** 00:21:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Uztarrigilea Aramaitik etortzen zen. Berak halaxe eskatuta, pagondoa botatzen zuten. Ondoren errekan beratzen utzi zortzi bat egunean, eta bigun-bigun zegoenean egiten zuen uztarria. Egun batean bukatzen zuen lana, aldika idien buru eta adarretan probatuz. Hamar bat urte irauten zuten uztarriek.

30. Ferratokia. Behor pertxeroia

- **Erref:** OTX-017/012
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:22:02. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Uztarrigilearen lana ez zen garestia izaten. Urtean 40 bat uztarri egingo zituen uztarrigileak. Zelaieta auzokoek eurek egindako ferratokia zuten. Ferratzailea, ordea, Dimatik etortzen zen. Gaur egun ferratokiaren txabola egurra edukitzeko erabiltzen dute. Idiak kendu zituztenean behor handi bat ekarri zuten, pertxeroi bat, Axpetik. Anaia biren artean sats gurdikada bat erantsi zioten behorrari, eta orduan konturatu ziren hura ez zela idi pare. Baina gurdikada erdi eramateko gauza bazen.

31. Astoa eta behorra gurdi-abereak

- **Erref:** OTX-017/014
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:25:36. **Bukatu:** 00:28:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Behor pertxeroia oso estimu handian izan zuten. Paradara eramaten zuten, baina behorak ez zuen umerik hartzen. Basoko behorak ere bazituzten. Sats gurdikadak erripan gora tiratzeko, astoa lotzen zioten behorrari lagun egiteko.

32. Sats garraioan behor birekin

- **Erref:** OTX-017/015
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:28:19. **Bukatu:** 00:32:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Behin, aldeko baserriko behorra ere erabili zuten sats garraioan. Hainbat arazo izan zituzten harekin.

33. Behorretik behorrera alde handia. Ardi satsa

- **Erref:** OTX-017/016
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:32:08. **Bukatu:** 00:34:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Ardi satsa ganaduena baino hobea dela dio Patxik. Ardiarena erre eta xehatu egiten den modura, behiarena oreka bezala geratzen da.

34. Baserriko tresnak. Familia tertulian

- **Erref:** OTX-017/019
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:38:37. **Bukatu:** 00:40:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Familia eta harremanak

Laburpena:

Sats sardea simaurra kargatzeko erabiltzen da, eta sats aitzurra, berriz, deskargatzeko. Lanabes asko gordetzen du oraindik etxean. Segur gaur bertan erabili du azkenekoz. Sarritan lau anaia elkartzen dira tertulian.

35. Haria egiten

- **Erref:** OTX-017/022
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:45:57. **Bukatu:** 00:47:53

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Artile kapa garbitu eta harrotu ondoren, kardatu egiten zen, gero maratilarekin haria egiteko. Haria etxerako prestatzen zuten, jertseak eta galtzerdiak egin ahal izateko. Karda lana azaltzen du.

36. Lisaburdinak eta abarkak

- **Erref:** OTX-017/024
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:48:38. **Bukatu:** 00:51:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Txingarrak sartuta berotzen ziren lisaburdinen ondoren burdinazkoak etorri ziren, txapa gainean berotzekoak. Abarka sokarik ez, baina anaiak larruzko abarkak egiten zituen. Juan Kruz anaiaren abarka lanak azaltzen ditu. Gomazko abarken zolak zortzi egunean gastatzen omen ziren. Hanka bustiekin sarritan ibili arren, lehengo jendea gutxiago gaixotzen zen.

37. Amandrearekin gaztagintzan kantetan

- **Erref:** OTX-017/025
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:51:42. **Bukatu:** 00:53:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

Gaztagintzan amandrearengandik hasita ilobarik gazteeneraino ibiltzen ziren. Umetan amandrearengandik gertu egoten ziren, gazta mami eske. Amandrea Dimatik etorritakoa zen. Amandreari ikasitako kanta bat abesten du.

38. Anaia Ameriketara artzain

- **Erref:** OTX-017/027
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:54:42. **Bukatu:** 00:57:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Aita ez zen oso kontalaria baina amandrea bai. Suaren inguruan arto zuritzen

nola egiten zuten gogoratzen du. Amandreak zioen Ameriketan ere txakurrak ortozik ibiltzen zirela, baina hala ere Patxiren anaia bat hara joan zen artzain, eta amandrearen neba biren barri jakin zuen bertan.

39. Kanta batzuk. San Joan eguna.

- **Erref:** OTX-017/029
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:59:43. **Bukatu:** 01:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Amandrearen kanta batzuen letra zatiak gogoratzen ditu, San Joan gauekoa horietako bat. Oraindik pizten du sua San Joan bezperan eta baita San Pedro bezperan ere. Betidanik egin den modura, lizar abarra jartzen du atean San Joan egunean. Lehen soroak bedeinkatzen ziren. Abadeak gazta truke ardiak ere bedeinkatzen zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com